

KOD.: A215

GIZARTE-HEZKUNTZA.

***LEHEN ARIKETA
BIGARREN PROBA***

***Denbora, gehienez: 100 minutu.
Galderak: 100.***

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredu.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

Euskal Autonomia Erkidegoko esparru juridikoa, gizarte-zerbitzuen alorrean: 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioez eta zerbitzuez baliatu ahal izatea...
 - a) eskubide objektiboa izango da.
 - b) eskubide subjektiboa izango da.
 - c) oinarritzko eskubidea izango da.
 - d) eskubide naturala izango da.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zein prestaziok izan behar dute harreman-alderdi bat, lagun egitekoa, eta, beraz, ahal den neurrian, erabiltzaileen parte-hartzearekin gauzatu behar dira?
 - a) Prestazio teknikoak
 - b) Prestazio ekonomikoak
 - c) Prestazio teknologikoak
 - d) Guztiak
3. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeak —Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio teknikoetako bat den aldetik— barne hartzen ditu:
 - a) Bitartekaritza, orientazioa, etxeko laguntza eta laguntza pertsonala
 - b) Informazioa, balioespena, diagnostikoa eta orientazioa
 - c) Estimulazioa lantzeko esku-hartzea, arlo okupazionalan esku hartzea, heziketan esku hartzea eta arlo psikosozialean esku hartzea
 - d) Estimulazioa lantzeko esku-hartzea, arlo okupazionalan esku hartzea, bitartekaritza eta orientazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko esparru juridikoa, gizarte-zerbitzuen alorrean: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

4. Prozedura arrunt baten barruan, zein profesionalek egingo du premien hasierako balioespena, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzea bidezkoa den erabakitzeko?
 - a) Udalaren Gizarte Zerbitzuko gizarte-langile batek
 - b) Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuko gizarte-langile batek edo beste profesional batek
 - c) Udalaren Gizarte Zerbitzuko gizarte-langile batek edo beste profesional batek
 - d) Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuko gizarte-langile batek
5. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, honela definitzen dira zerbitzuak:
 - a) Gizarte-zerbitzuen entitate batek kudeatzen dituen antolamendu-unitateak, prestazio tekniko edo teknologiko bat edo bat baino gehiago biltzen dituztenak.
 - b) Lantalde profesionalek egindako jarduerak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren funtsezko helburuetako bat edo hainbat lortzera bieratuak.
 - c) Gizareratzea eta/edo autonomia errazteko prestazioak, baita gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoeren, mendetasun-egoeren edo babesgabetasun-egoeren ondorio ekonomikoak estaltzeko edo arintzeko ere
 - d) Unitate organiko eta funtzional gisa eraturako higiezin oro edo higiezinaren zati oro, kokapen autonomoa eta identifikagarria duena eta gizarte-zerbitzuen prestazioak eskaintzen dituena edo prestazio horiek bertan antolatzen dituena.
6. Zein da Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) eta esku-hartzeari jarraipena eta programazio indibiduala egitearen arduraduna?
 - a) Erabiltzaileak jotzen duen zerbitzuak edo zerbitzuek egiten dute APP, eta programazio indibidualak, berriz, kasuaren koordinazioa bere gain hartzen duen erreferentziako profesionalak.
 - b) Kasuaren koordinazioa bere gain hartzen duen erreferentziako profesionalak egiten du APP, eta programazio indibidualak, berriz, erabiltzaileak jotzen duen zerbitzuak edo zerbitzuek.
 - c) Kasuaren koordinazioa bere gain hartzen duen erreferentziako profesionalak egiten ditu bi dokumentuak.
 - d) Erabiltzaileak jotzen duen zerbitzuak edo zerbitzuek egiten dituzte bi dokumentuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko esparru juridikoa, gizarte-zerbitzuen alorrean: 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinen bitartez onartu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea.

7. “Errespeturik handienaz onartuak izatea” eta “Banakako arreta jasotzea, norberari egokitutakoa”, erabiltzaileek duten eskubide honek berarekin dakartzan bi alderdi dira:
 - a) Duintasunerako eskubidea
 - b) Pribatutasun- eta konfidentzialtasun-eskubidea
 - c) Autonomia-eskubidea
 - d) Beharren ebaluaziorako eskubidea

8. Erabiltzaileek eskubidea dutenez arretarako banakako plana izateko, gizarte-zerbitzuek esku hartzeko arrazoizko epeen barruan burutu beharko dute beren jarduna, eta inolaz ere ez da gaudituko...
 - a) 20 egun balioduneko epea, beharren ebaluazioa bukatu eta arretarako banakako plana egin bitartean.
 - b) 50 egun balioduneko epea, beharren ebaluazioa bukatu eta arretarako banakako plana egin bitartean.
 - c) 30 egun balioduneko epea, beharren ebaluazioa bukatu eta arretarako banakako plana egin bitartean.
 - d) 90 egun balioduneko epea, beharren ebaluazioa bukatu eta arretarako banakako plana egin bitartean.

9. Gizarte-zerbitzuetako profesionalak parte-hartzea erraztu behar diete erabiltzaileei, honako honetan:
 - a) Egin beharreko esku-hartze profesionalaren definizioan.
 - b) Esku-hartzearen fase guztietan, definizioan izan ezik.
 - c) Esku-hartzearen fase guztietan, ebaluazioan izan ezik.
 - d) Ez da gizarte-zerbitzuetako profesionalen gitekoa erabiltzaileei parte-hartzea erraztea.

Gizarte-zerbitzuen planifikazio estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, 2016-2019.

10. Hauek dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) zerbitzu eta prestazio ekonomikoen premia eta etorkizuneko eskaria baldintza dezaketen inguruko faktore garrantzitsuetako batzuk:
 - a) Krisialdiak premietan eta baliabideetan izan duen eragina.
 - b) Eredu komunitarioa eta prebentzio-ikuspegia indartzeko premia.
 - c) Aurreko biak faktore garrantzitsuak dira.
 - d) Ez a) ez b) ez dira faktore garrantzitsuak.

11. Ardatz hauetatik, zein ez dago estrategikotzat definitua Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan (2016-2019)?
 - a) Arretaren unibertsalizazioa, lurralde-antolamendua eta ekitatea sarbidean.
 - b) Eredu komunitarioa eta, batik bat, prebentzio-ikuspegia finkatzea eta garatzea, eta arreta pertsonalizatzea.
 - c) Beste sistema batzuekin lankidetzan jardutea.
 - d) Sare profesionalak sortu eta antolatzea, dauden beharrei erantzuteko.

Gizarte-zerbitzuen planifikazio estrategikoa: Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken Plan Estrategikoa.

12. Unibertsaltasunarekin, globaltasun/integraltasunaren, gizarte-inbertsioarekin eta parte-hartzearekin batera, zein da Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken Plan Estrategikoaren bosgarren printzipio gidaria?
 - a) Gizarte-berrikuntza
 - b) Sare-lana
 - c) Aldaketa soziala
 - d) Taldekako arreta

13. Gasteizko Udalaren gizarte-zerbitzuetan, hemen daude presente gizarte-hezitzaileak:

- a) Arreta soziala
- b) Arreta psikosoziala
- c) Arreta psikosozioedukatiboa
- d) Hiru arreta-mota horietan

Tresna tekniko komunak: 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa.

14. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara jotzen dutenen diagnostiko soziala jasotzen duen agiria da fitxa soziala:

- a) Bai, baina hasierako diagnostikoa bakarrik jasotzen du.
- b) Bai, baina diagnostiko sakona bakarrik jasotzen du.
- c) Bai, hasierako diagnostikoa nahiz diagnostiko sakona jasotzen ditu.
- d) Ez, fitxa sozialak ez du jasotzen diagnostiko soziala.

15. Fitxa soziala eta diagnostiko soziala honela lantzen dira:

- a) Premiazko prozedura gisa.
- b) Larritasun-prozedura gisa.
- c) Esku-hartzeko oinarritzko prozedura gisa.
- d) Salbuespeneko prozedura gisa.

385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena.

16. 1. irizpideko funtsezko hiru esparruetan —bizikidetza, pertsonala eta soziala— 0 balioko 8 adierazle baino gehiago dituen pertsona, 2. irizpidea betetzen duelarik, 2. irizpideko funtsezko lau esparrutan —ekonomiko-laborala, bizikidetza, pertsonala, osasuna— gabeziak dituelako, egoera honetan dago:

- a) Gizarte-inklusioa
- b) Gizarte-bazterkeria
- c) Gizarte-bazterkeriako arriskua
- d) Gizarte-bazterkeria larria

17. Gizarte-bazterkeriako egoerak baloratzeko, gabezia pertsonalez eta harreman-gabeziez gain, irizpide hau hartzen da kontuan:

- a) Autonomia pertsonal eta ekonomikoa gutxitzea
- b) Diru-sarrerak bermatzeko errenta
- c) Baliabide material eta ekonomikoak
- d) Gabezia pertsonalak eta harreman-gabeziak bakarrik hartzen dira kontuan

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema: 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.

18. Gizarteratzeko hitzarmenaren proposamena diseinatzea —non zehaztuko baitira gizarteratzeko parte hartzen duten aldeek hartutako konpromiso guztiak— honi dagokio:

- a) Bigarren mailako Arreta Zerbitzuei
- b) Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetako profesionalei
- c) Eusko Jaurlaritzako profesionalei
- d) Hiru profesional-mota horiei

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema: 4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzen duena.

19. Diru-sarrerak bermatzeko errenta emateko, edozein modalitatetan, gizarteratze aktiborako hitzarmen bat egingo da errentaren titularrarekin, III. titularen I. kapituluan aurreikusitako baldintzetan, errazago laneratu eta gizarteratu dadin:
- Kasu eta egoera guztietan, salbuespenik gabe.
 - Kasu guztietan, salbu eta bizikidetzaren unitateko pertsona guztiek erretiro-pentsioa, ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko pensioa edo kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa jasotzen badute.
 - Inongo kasu eta egoeratan ez da izango halako loturarik.
 - Bizikidetzaren unitateak 18 urtetik 50era bitarteko kideak bakarrik dituen kasuetan.

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema: 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituena.

20. Gizarte-larrialdietarako laguntzak...
- aldian-aldian emango ez diren prestazio ekonomikoak dira, eta haien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoak —ohikoak zein apartekoak— aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak.
 - aldian-aldian emango diren prestazio ekonomikoak dira, eta haien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoak —ohikoak zein apartekoak— aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak.
 - aldian-aldian emango ez diren prestazio ekonomikoak dira, eta haien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren aparteko gastu espezifikoak eta ez besteri aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak.
 - aldian-aldian emango ez diren edozein izaeratako prestazioak dira, eta haien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren aparteko gastu espezifikoak eta ez besteri aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak.

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema: 16/2017 DEKRETUA, urtarrilaren 17koa, gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena.

21. Altzari-gastuak eta “linea zuria” deituriko etxetresna elektrikoaren gastuak, gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoak jotzen al dira Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duen urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuan?
- Ez
 - Bai
 - Altzari-gastuak bakarrik
 - “Linea zuria” deituriko etxetresna elektrikoaren gastuak bakarrik

Gasteizko Udalaren Prestazio Ekonomikoaren Programa arautzen duen Ordenantza (2017) eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako udal prestazio ekonomikoa arautzen duen udal ordenantza (2017).

22. Gasteizko Udalaren kasuan, honako hau garatzeari lotuta dago udal prestazio ekonomikoak ematea:
- Gizarte-inklusioko plana
 - Familian esku hartzeko plana
 - Integrazio soziolaboralerako plana
 - Ez dago inongo plani lotuta

23. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako udal prestazio ekonomikoak, Gasteizko Udalaren eskumen-esparruan, hauei zuzendutako zerbitzuei lotzen zaizkie:
- Haurrak
 - Adinekoak
 - Dibertsitate funtzionala duen pertsonak
 - Kolektibo guztiei

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko marko juridikoa: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa (1-68 kap.). 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena.

24. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, 6. artikuluan, “Informazioa isilean edukitzeko betebeharra” jasotzen du:
- Organismo, entitate eta erakunde publiko edo pribatuek duten betebeharra, elkarlanean jardun eta beren jarduerak koordinatzeko.
 - Organismo, entitate eta erakunde publiko edo pribatuek duten betebeharra, behar beste neurri hartzeko, intimitaterako eskubidea aplikatuz beren esku duten informazioa isilean edukitzeko.
 - Organismo, entitate eta erakunde publiko edo pribatuek duten betebeharra, beren aurrekontuetan haur eta nerabeentzako sustapen-, arreta-, babes-, prestakuntza-, aisialdi- eta integrazio-jarduerak lehenesteko.
 - Haur eta nerabeen betebeharra, sustapen-, arreta-, babes-, prestakuntza-, aisialdi- eta integrazio-jardueretan ez parte hartzeko.
25. Haur eta nerabeen gizarte-integraziorako eskubidea bermatzeko, hau aurreikusten du Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak:
- Haurrei eta nerabeei informazioa emateko zerbitzuak.
 - Haurrentzako zerbitzu eta programak familiaren aldeko jardunean.
 - Helduarora igarotzeko programak.
 - Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

26. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa.
- Arrisku-egoeretan, haurrak eta nerabeak babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuek kasua hartu eta ikertu egin beharko dute, baloratu eta bideratu. Aitzitik, babesgabetasun larriaren zantzuak ageri diren egoeretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek hartu beharko dute kasua, eta ikertu eta baloratu.
 - Arrisku-egoeretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek kasua hartu eta ikertu egin beharko dute, baloratu eta bideratu. Aitzitik, babesgabetasun larriaren zantzuak ageri diren egoeretan, haurrak eta nerabeak babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuek hartu beharko dute kasua, eta ikertu eta baloratu.
 - Bai arrisku-egoeretan, bai babesgabetasun larriaren zantzuak ageri diren egoeretan, haurrak eta nerabeak babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuek hartu beharko dute kasua, eta ikertu, baloratu eta bideratu.
 - Bai arrisku-egoeretan, bai babesgabetasun larriaren zantzuak ageri diren egoeretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek hartu beharko dute kasua, eta ikertu, baloratu eta bideratu.

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako laguntzaren marko juridikoa: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.

27. Sistemak mendetasunen bat duten pertsonak babestuko ditu —Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean zehaztutako moduan—, maila hauen arabera:
- Estatuko Administrazio Orokorrek ezarritako gutxieneko babes-maila, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - Estatuko Administrazio Orokorren eta autonomia-erkidego bakoitzeko administrazioen artean ezarritako babes-maila, 10. artikuluan zehazten diren hitzarmenen bidez adostuko baita.
 - Autonomia-erkidego bakoitzak aukeran izango duen babes-maila osagarria.
 - Aurreko hiru mailak.

28. Genero-ikuspegia txertatzea da legearen oinarri diren printzipioetako bat:

- a) Ez, baina bai 2008an argitaratutako haren eguneratzean.
- b) Bai
- c) Ez
- d) Bai, baina zenbait artikuluri dagokienez bakarrik.

Genero-indarkeriaren kontrako babesaren marko juridikoa. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa.

29. Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren xedea, lehen artikulua araberaz:

- a) Halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktima diren emakumeei babes ematea.
- b) Halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktima diren emakumeen seme-alaba adingabeei eta haien tutoretzapean, zaintzapean edo jagoletzapean dauden adingabeei babes ematea.
- c) Halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta emakume guztiei babes ematea, indarkeria hori jasan badute nahiz jasan ez badute.
- d) Halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktima diren emakumeei, haien seme-alaba adingabeei eta haien tutoretzapean, zaintzapean edo jagoletzapean dauden adingabeei babes ematea.

30. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa.

- a) Halakoetan hartu beharreko sentsibilizazio-, prebentzio- eta detekzio-neurriak bakarrik arautzen ditu.
- b) Halakoetan hartu beharreko tutoretza-neurriak bakarrik arautzen ditu.
- c) Halakoetan hartu beharreko sentsibilizazio-, prebentzio- eta detekzio-neurriak arautzen ditu, baita tutoretza-neurriak eta neurri penal eta judizialak ere.
- d) Halakoetan hartu beharreko neurri penal eta judizialak bakarrik arautzen ditu.

31. Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera:

- a) Epaileak genero-indarkeriaren ondoriozko erruztatuari eten ahal izango dio guraso-ahalaren, zaintza eta jagoletzaren, harreraren, tutoretzaren, kuradoretzaren edo egitezko zaintzaren egikaritzea, haren menpe dauden adingabeei dagokienez.
- b) Epaileak genero-indarkeriaren ondoriozko erruztatuari bermatu ahal izango dio guraso-ahalaren, zaintza eta jagoletzaren, harreraren, tutoretzaren, kuradoretzaren edo egitezko zaintzaren egikaritzea, haren menpe dauden adingabeei dagokienez.
- c) Epaileak genero-indarkeriaren ondoriozko erruztatuari eten ahal izango dio guraso-ahalaren, zaintza eta jagoletzaren, harreraren, tutoretzaren, kuradoretzaren edo egitezko zaintzaren egikaritzea, haren menpe dauden adingabeei dagokienez, kasurik larrietan bakarrik.
- d) Epaileak genero-indarkeriaren ondoriozko erruztatuari eten ahal izango dio guraso-ahalaren, zaintza eta jagoletzaren, harreraren, tutoretzaren, kuradoretzaren edo egitezko zaintzaren egikaritzea, haren menpe dauden adingabeei dagokienez, indarkeriaren biktima den emakumeak hala eskatzen duen guztietan.

Erakundeen arteko koordinazioa, tratu txarren biktimei laguntza emateko: Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundeen arteko II. akordioaren jarduera-protokoloa.

32. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundeen arteko II. akordioaren jardura-protokoloak dio gizarte-zerbitzuetako profesionalak, legez, gertatutakoa epaitegiei jakinaraztera derrigortuta daudela:

- a) Bai, baina biktimak salaketa aurkeztea erabakitzen duenean bakarrik.
- b) Bai, baina adingabekoak inplikaturik daudenean bakarrik.
- c) Bai, kasu guztietan, biktimak salaketa ez aurkeztea erabakitzen badu ere.
- d) Ez, gizarte-zerbitzuetako profesionala ez dago derrigortuta, legez, gertatutakoa epaitegiei jakinaraztera.

33. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundeen arteko II. akordioaren jarduera-protokoloaren arabera, honek eska dezake babesteko agindua:
- Indarkeriaren biktima den emakumeak bakarrik.
 - Biktimarekin legean jasota dagoen ahaidetasun-harremanen bat duten pertsonak, indarkeriaren biktima den emakumeaz gain.
 - Gizarte-zerbitzuen alorreko profesionalak, indarkeriaren biktima den emakumeaz gain.
 - Osasun-zerbitzuen alorreko profesionalak, indarkeriaren biktima den emakumeaz gain.

Gizarte-inklusioren kontzeptu- eta arau-esparrua, diagnostikoa, printzipioak eta jarduera-eremuak (Gizarteratzeko IV. Euskal Plana, 2017-2021).

34. Gizarteratzeko IV. Euskal Planean (2017-2021), hauekin zuzenean lotuta ageri da gizarte-bazterketa:
- Baliabide pertsonalak, harreman-baliabideak eta baliabide materialak.
 - Baliabide materialak eta harreman-baliabideak.
 - Baliabide pertsonalak eta harreman-baliabideak.
 - Baliabide materialak.
35. Gizarteratzeko IV. Euskal Planean (2017-2021) jasotzen den jarduteko printzipioetako bat “Komunitateko arreta” da; izan ere,...
- bazterketa-egoeren kausak —egiturazko eragileetatik harago— batez ere indibidualak izaten dira eta, komunitatearen esparruan adierazten direnez, esparru horretan egin behar zaie aurre.
 - bazterketa-egoeren kausak —norbanakoak izan zitzakeen eragileetatik harago— batez ere egiturazkoak izaten dira, eta, egoera eta bizipen pertsonalen esparruan egin behar zaie aurre.
 - bazterketa-egoeren kausak —norbanakoak izan zitzakeen eragileetatik harago— batez ere egiturazkoak izaten dira, eta, komunitatearen esparruan adierazten direnez, esparru horretan egin behar zaie aurre.
 - “Komunitateko arreta” ez da Gizarteratzeko IV. Euskal Planeko (2017-2021) jarduteko printzipioetako bat.
36. Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren (2017-2021) hiru jarduera-ardatz edo -esparruak: “Diru-sarrerak bermatzeko eta laneratzeko politikekin berriaz erlazionatutako neurriak”, “Gizarte-zerbitzuen, osasunaren, etxebizitzaren eta hezkuntzaren eremuetan edo beste batzuetan garatu beharreko neurri sektorialak” eta:
- Erakunde-arteke artikulazioarekin lotura duten neurriak.
 - Bi jarduera-ardatz edo -esparru bakarrik jasotzen dira, goian adierazi direnak.
 - Esparruan lan egiten duten profesionalen prestakuntzarekin lotura duten neurriak.
 - Generoarekin lotura duten neurriak.

Etterik gabekoak: kontzeptuak, kausak eta etterik gabeko pertsonen laguntzeko euskal estrategiaren proposamena (Etterik gabeko pertsonentzako euskal estrategia, 2018-2021).

37. Zenbat kategoria kontzeptual bereizten ditu ETHOSek (*European Typology of Homelessness and Housing Exclusion*), etterik gabeko pertsonen dagokienez?
- Hiru: aterperik gabea, etterik gabea eta etxebizitza ezegokia
 - Hiru: aterperik gabea, etterik gabea eta etxebizitza ez segurua
 - Lau: aterperik gabea, etterik gabea, etxebizitza ez segurua eta etxebizitza ezegokia
 - Bost: aterperik gabea, etterik gabea, etxebizitza ez segurua, etxebizitza ezegokia eta nahikoa ez de etxebizitza
38. Bizitegi-bazterketa larria prebenitzeko eta murrizteko euskal estrategiak (2018-2021) izaera hau du:
- Normatiboa
 - Loteslea
 - Aholku-emailea
 - Orientatzailea

Desgaituen eskubideei buruzko marko juridikoa. New Yorkeko 2006ko abenduaren 13ko Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa berresteko tresna.

39. New Yorkeko 2006ko abenduaren 13ko Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa berresteko tresnak dio parte diren Estatuak partaidetza bermatuko dietela desgaitasuna duten pertsonen honako honetan:

- a) Bizitza politiko eta publikoan, baina ez bizitza kulturean, jolas-jardueretan, aisialdian eta kirolean.
- b) Bizitza kulturean, jolas-jardueretan, aisialdian eta kirolean, baina ez bizitza politikoan eta publikoan.
- c) Bai bizitza politiko eta publikoan, bai bizitza kulturean, jolas-jardueretan, aisialdian eta kirolean.
- d) Tresna horrek ez dio parte diren Estatuak desgaitasuna duten pertsonen partaidetza bermatu behar dutenik, beren bizitzen inongo alderditan.

40. New Yorkeko 2006ko abenduaren 13ko Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa berresteko tresnan definituta dagoen *modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartua izateko eskubideak* hau aurreikusten du:

- a) Desgaitasuna duten pertsonen aukera izatea bizilekua aukeratzeko, eta non eta norekin bizi nahi duten, gainerako baldintza berberetan, eta ez egotea behartuta bizitza-sistema jakin baten arabera bizitzera.
- b) Desgaitasuna duten pertsonen behartuta egotea bizilekua aukeratzera, eta non eta norekin bizi nahi duten, gainerako baldintza berberetan, eta ez egotea behartuta bizitza-sistema jakin baten arabera bizitzera.
- c) Desgaitasuna duten pertsonen bizilekua aukeratzeko beharra edukitzea, eta non eta norekin bizi nahi duten, gainerako baldintza berberetan, eta ez egotea behartuta bizitza-sistema jakin baten arabera bizitzera.
- d) Desgaitasuna duten pertsonen bizilekua aukeratu ahal izatearen garrantzia, eta non eta norekin bizi nahi duten, gainerako baldintza berberetan, eta ez egotea behartuta bizitza-sistema jakin baten arabera bizitzera.

EAEko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura.

41. Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen ditu adinekoenganako tratu txarrak:

- a) Behin egindako edo errepikatutako ekintza, edo erantzun egokirik eza, adineko pertsona bati kaltea edo larritasuna eragiten diona, harreman profesional baten barruan gertatzen dena, nahita edo nahi gabe egin izan.
- b) Behin egindako edo errepikatutako ekintza, edo erantzun egokirik eza, adineko pertsona bati kaltea edo larritasuna eragiten diona, konfiantza espero den edozein harremanetan gertatzen dena, nahita edo nahi gabe egin izan.
- c) Behin egindako edo errepikatutako ekintza, edo erantzun egokirik eza, adineko pertsona bati kaltea edo larritasuna eragiten diona, konfiantza espero den edozein harremanetan gertatzen dena, baldin eta nahita egin bada.
- d) Behin egindako edo errepikatutako ekintza, edo erantzun egokirik eza, adineko pertsona bati kaltea edo larritasuna eragiten diona, harreman profesional baten barruan gertatzen dena, baldin eta nahita egin bada.

42. "EAEko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura, 2015" izena duen agirian jasota dagoen "Tratu txar fisiko eta ekonomikoaren adierazleak detektatu eta horien larritasuna baloratzea" galdetegiak, adierazle fisiko eta ekonomikoen gain, beste hauek jasotzen ditu:

- a) Hezkuntza- eta prestakuntza-adierazleak
- b) Adierazle fisiko eta ekonomikoak bakarrik jasotzen ditu, izenburuan esaten den bezala
- c) Adierazle sozialak
- d) Adierazle sanitarioak (historia medikoa)

Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia, 2015-2020. Kontzeptu- eta araudi-esparrua, planifikazio gerontologikoa eta estrategiaren printzipioak.

43. Duintasuna, Zahartze Aktiborako Euskal Estrategiaren (2015-2020) printzipio gidarietako bat, honi dagokio:
- Duintasuna ez da Zahartze Aktiborako Euskal Estrategiaren (2015-2020) printzipio gidarietako bat.
 - Adineko pertsonen ahotsa kontuan hartua izateko premia, haiei eragiten dieten erabakiak hartzeko edozein prozesutan, eta, halaber, zahartzen diren pertsonen integrazioaren eta inklusioaren obligazioa, elkartasuna eta herritar diren aldetik dute erantzukizuna oinarritzat harturik parte hartu nahi duten ekimenetan.
 - Erabaki aske eta borondatezkoak hartzeko beharrezko duten laguntza jasotzeko eskubidea.
 - Errespeturako eta berdintasunerako eskubidea, edozein pertsonak merezi duen kontsiderazioan, eta, ondorioz, haien herritar-eskubideak aitortzeko obligazioa.
44. Zahartze aktiboaren indizeak (AAI) lau dimentsio aintzat hartzen ditu (enplegua, partaidetza soziala, bizitza independentea eta gaitasunak). Partaidetzaren pisu espezifikoak, indize globalaren kalkuluan, hau da:
- % 10
 - % 20
 - % 35
 - % 50

Adinekoen partaidetza soziala (IMSERSO). Gasteizko adinekoentzako zentro soziokulturaletako jardueren batzordeen partaidetza-esperientzia.

45. 90eko urteen bukaeran, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) “zahartze osasuntsu” esateari utzi zion eta “zahartze aktibo” erabiltzen hasi, asmo honekin:
- Zahartze-prozesuan erabakigarriak diren hainbat faktore garrantzitsuren berri emateko, sanitarioez gain.
 - Hainbat faktore garrantzitsuren berri emateko, sanitarioez gain, nahiz eta azken hori izan erabakigarriena zahartze-prozesuan.
 - Faktore sanitarioak azpimarratzen jarraitzeko, zahartze-prozesuan erabakigarriak diren aldetik, bestelako faktorerik sartu gabe.
 - Zahartze-prozesuan erabakigarriak diren beste faktore batzuen existentzia azpimarratzeko, faktore sanitarioen garrantzia deuseztatuz.
46. 1991an, Nazio Batuen Biltzar Orokorrek hainbat printzipio promulgatu zituen, adinekoen gainean, herrialdeek beren politika eta programetan txerta zitzaten: independentzia, zaintzak, auto errealizatzea, duintasuna eta...
- hezkuntza
 - garapena
 - partaidetza
 - Galderaren formulazioan ageri diren lau printzipioak bakarrik promulgatu ziren.

Arrisku- eta babesgabetasun-egoerak: definizioa eta larritasun-mailak, larritasunaren balioespena eta prozedura, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duen 9ko 152/2017 Dekretuaren arabera.

47. Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresna fase honetan edo hauetan aplikatzen da:
- Harrera
 - Ikerketa
 - Harrera eta ikerketa
 - Harrera, ikerketa eta ebaluazioa

48. Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnan ematen den definizioaren arabera, arrisku larriko eta babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko orduan eskumena duten erakundeak hauek dira:

- a) Zerbitzu komunitarioen sarea
- b) Udalaren gizarte-zerbitzuak
- c) Foru-aldundiak
- d) Zerbitzu juridikoak

49. Nola definitzen da egoera hau: Gurasoek, haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak edo familian bizi diren pertsona helduek heziketako edo zaintza, tratu edo harremaneko ohitura desegokiak erabiltzen dituzte haurrekin edo nerabeekin; egoera horrek ez dio kalte esanguratsurik eragin haurrari edo nerabeari (maila fisikoan, emozionalean, sozialean, kognitiboan edo sexualean), baina irauten badu, kaltea eragin diezaioke etorkizunean.

- a) Babesgabetasunarekiko zaugarritasuna
- b) Arrisku arina
- c) Arrisku ertaina
- d) Arrisku larria

Gurasotasun positiboa, gurasoen heziketa baliabide psiko-hezitzaile gisa eta erresilientzia familian. Gurasotasun positiboaren jardunbide egokien definizioa.

50. Eredu ekologiko batetik, honen mende dago gurasotasun positiboa:

- a) Gurasoen gaitasunen eta ez besteren mende
- b) Gurasoen gaitasunen eta testuinguru psikosozialaren mende.
- c) Gurasoen gaitasunen, testuinguru psikosozialaren eta adingabearen premien mende.
- d) Gurasoen gaitasunen, familia-ereduaren eta adingabearen premien mende.

51. Gurasoek jakintzak eta eguneroko egoeren behaketaren aurrean pentsatu eta jarduteko moduak elkarrekin trukatzeko eta batzuek eta besteek guraso izateari ematen dioten bizitza-zentzua ikasten duteneko agertoki soziokulturalak sortzean oinarritzen diren gurasoen hezkuntzarako programek hauek dituzte abiapuntu:

- a) Guraso esperientziadunak
- b) Guraso informatuak
- c) Guraso eraginkorrak
- d) Guraso erresilienteak

Genero indarkeriaren biktimei harrera egin eta laguntzeko Onartuz prozesua, Gasteizko Udalaren gizarte-zerbitzuetan.

52. Zein da ONARPEN taldearen zeregina, Gasteizko Udalaren esparruan?

- a) Etorkinei laguntzea
- b) Gizarte-bazterkeria bizi dutenei laguntzea
- c) Genero-indarkeriaren biktimei eta horien seme-alabei laguntzea
- d) Ogasunarekin zerikusia duten kontuetan laguntzea

53. Gasteizko Udalaren ONARTUZ izeneko protokoloaren barruan kasu berriei lehenengo harrera egiten dien erreferentziatzeko profesionala...

- a) psikologoa da
- b) gizarte-langilea da
- c) gizarte-hezitzailea da
- d) Edozein profesionalak egin lezake lehenengo harrera

Zaintza informalaren kontzeptua. Zaintzak zaintzailearen osasunean eta ongizatean dituen ondorioak. Zaintzeko premia duen pertsonen profila. EAEko zaintzaileen profila.

54. IMSERSOk ematen duen definizioaren arabera, zaintza informalaz dihardugu...
- profesionalek egiten dutenean, ordainsari baten truke, eta kontratu-harreman batean oinarrituta.
 - pertsona batek egiten duenean, senidea izan ala ez, ordainsaririk jaso gabe.
 - boluntarioek egiten dutenean, eta elkarri laguntzeko organizazioek.
 - denboran aldatuz doazen hainbat pertsonak egiten dutenean.
55. Rolaren teoria da zaintzailearen osasunean eta ongizatean zaintzak dituen ondorioak azaltzeko garatu den teoretiko bat (Bastawrous, 2013). Perspektiba horretatik, rol-gatazkak ager daitezke, honi gagozkiorik:
- Rolaren betebeharrak betetzeko denborarik edo baliabide nahikorik ez izatea
 - Hainbat rolen itxaropenen arteko bateraezintasuna
 - Norbera asebeteta ez sentitzea, rol hori betetzen
 - Rola gauzatzeko baliabide pertsonalik ez izatea
56. Euskal Autonomia Erkidegoko 2013ko Osasun Inkestako (EAE0113) datuen arabera:
- Zaintzaile ez diren pertsonak dira depresio- eta antsietate-sintoma gehien izan ohi dituztenak.
 - Etxetik kanpoko zaintzaileak dira depresio- eta antsietate-sintoma gehien izan ohi dituztenak
 - Etxeko zaintzaileak dira depresio- eta antsietate-sintoma gehien izan ohi dituztenak
 - Antzeko balioak ematen dituzte zaintzaile ez diren pertsonak eta etxetik kanpoko eta etxeko zaintzaileak, depresio- eta antsietate-sintomei dagokienez.

Koordinazio sozio-sanitarioa. Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak, 2017-2020.

57. “Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak, 2017-2020” dokumentuan aurreikusten diren etorkizuneko ekintzak eredu orekatuaren bitartez zertu nahi dira. Orobat izango da eredu hori...
- interaktiboa
 - asistentziala
 - ekologikoa
 - sozializatzailea
58. “Prebentzio soziosanitarioa eta herritarren partaidetza” da “Euskadiko Arreta Soziosanitarioa, 2017-2020” dokumentuko lehentasun estrategikoetako bat. Arrazoi honengatik:
- Sistema sozial eta sanitarioaren etorkizuneko iraunkortasuna.
 - Funtsezko eskubideak betetzea.
 - Europako araudia betetzea.
 - Ez da lehentasun estrategiko bat.

Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Saila, banaka, multzoka nahiz oro har biztanleria modu komunitarioan laguntza emateko programa eta baliabideak, eta haur eta familiei, adinekoei, genero-indarkeriaren biktimei eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen laguntza ematekoak (definizioa eta hartzaileak).

59. Hauek dira Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren izaera orokor eta polibalenteko zerbitzuak:
- Gizarte Inklusioaren Zerbitzua eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
 - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua
 - Administrazio-zerbitzuak eta zuzendaritza-atala
 - Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua eta Gizarte Inklusioaren Zerbitzua

60. Gasteizko Udaleko Komunitate Jardueraren Zerbitzutik esku-hartze hauek bideratzen dira:
- Banakoak, zein baitira pertsona edo familia bakoitzaren egoera aldatu eta hobetzea xede dutenak.
 - Taldekoak, aldaketa indibiduala helburu dutenak.
 - Taldekoak, helburu kolektiboa dutenak.
 - Aurreko hirurak zuzenak dira.
61. Kaleko Heziketarako programaren esparruan, hau egiten da:
- Gizarte- eta familia-ingurunean nahiz inguruarekiko harremanean arrisku-adierazleen multzo bat erakusten duten nerabeei zuzendutako esku-hartze psikosoziala.
 - Gizarte- eta familia-ingurunean nahiz inguruarekiko harremanean arrisku-adierazleen multzo bat erakusten duten nerabeei zuzendutako esku-hartze sozioedukatihoa.
 - Eskola-eremuan bakarrik zentratutako arrisku-adierazleen multzo bat erakusten duten nerabeei zuzendutako esku-hartze sozioedukatihoa.
 - Familia-ingurunean bakarrik zentratutako arrisku-adierazleen multzo bat erakusten duten nerabeei zuzendutako esku-hartze psikosoziala.
62. Gasteizko Udalaren Pausoka programa hauei zuzenduta dago:
- Adinekoak
 - Etterik gabeak
 - Dibertsitate funtzionala duten pertsonak
 - Familiak
63. Gasteizko Udalaren zentro sozioedukatihoetara hauek joaten dira:
- Babesgabetasun moderatuaren arriskuan dauden haur eta nerabeak
 - Babesgabetasun-egoera larrian dauden haur eta nerabeak
 - Desanparo-egoeran dauden haur eta nerabeak
 - Gasteizko haur eta nerabe guztiak
- Esku-hartze sozialaren etika.*
64. Intimitatea eta pribatutasuna errespetatzen dituen harreman profesional batean, honek definitzen du konfidentzialtasunaren objektua:
- Profesionalak
 - Erabiltzaileak
 - Profesionalak eta erabiltzaileak
 - Esku-hartze profesionala gauzatzen den zerbitzuko arduradunak
65. Etikaz eta deontologiak ari garelarik, hau da diferentzietako bat:
- Kolektibitate baten arloko jarduera-eredu bati egiten dio erreferentzia etikak; deontologiak, berriz, kontzientzia pertsonalari.
 - Sinonimoak dira
 - Etikak kontzientzia pertsonalari egiten dio erreferentzia; deontologiak, berriz, kolektibitate baten arloko jarduera-eredu bati.
 - Gauza bakar batek bereizten ditu: etika ezin da galdatu; deontologia bai.
66. Arabako Lurralde Historikoan Gizartegintzan etika-batzordeak sortzeko eta kreditatzeko modua arautu zeneko martxoaren 1eko 14/2011 Foru Dekretuaren arabera, etika-batzorde horiek...
- aholku-emaileak dira, dauden salaketa eta erreklamazioei dagokienez.
 - peritutzaz-zereginak dituzte, dauden salaketa eta erreklamazioei dagokienez.
 - aurkezten zaizkion gaietan inplikaturako profesionalen balizko erantzukizunen inguruko iritzia ematen dute.
 - zuzenean edo zeharka gizarte-zerbitzuekin zerikusia duten gai sozial eta ekonomikoak aztertzea dute xede.

67. Hezkidetzeta hezkuntza-ikuspegi bat da, zeinen helburua baita:

- a) Klase-desberdinkeriak pixkanaka desagertzea, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardunean ere.
- b) Genero-desberdinkeriak pixkanaka desagertzea, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardunean ere.
- c) Arraza- eta kultura-desberdinkeriak pixkanaka desagertzea, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardunean ere.
- d) Erlijio-desberdinkeriak pixkanaka desagertzea, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardunean ere.

68. “Berdintasuna udal-gobernuaren ereduari”, “Zaintzen ekonomia feminista” eta “Ahalduntze feminista” ildo estrategikoez gain, hau da laugarrena, Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planari (2018-2021):

- a) Emakumeak lan-merkatuan sartzea.
- b) Emakumeen partaidetza soziala eta zibikoa.
- c) Indarkeria matxistatik gabeko hiria.
- d) Ez dago laugarren ildo estrategikorik.

Proiektuak genero-ikuspegiarekin kudeatzea.

69. Proiektu edo erakunde batean generoa “zeharkako bihurtzeko”, honetan eragin behar da:

- a) Politika eta helburu instituzionalei dagokien maila substantzialean.
- b) Bizitza instituzionala arautzen duten prozedura eta mekanismoekin erlazionatutako egitura-mailan.
- c) Partaideen balio eta jarrerekin zerikusia duen maila kulturalan.
- d) Hiru mailetan.

70. Berdintasun-politiken eta genero-*mainstreaming*-aren arteko diferentzia hau da:

- a) Ez dago diferentziarik, *mainstreaming*-a berdintasun-politika bat baita.
- b) Generoen arteko desberdintasunetik sortzen diren emakumeen arazo eta beharrak konpontzera zuzenduak dira berdintasun-politikak, eta genero-*mainstreaming*-ak, berriz, politikak lantzeko prozesuaren berrantolaketa gehitzen du, genero-ikuspegia kontuan har dadin.
- c) Generoen arteko desberdintasunetik sortzen diren emakumeen arazo eta beharrak konpontzera zuzendua da genero-*mainstreaming*-a, eta berdintasun-politikek, berriz, politikak lantzeko prozesuaren berrantolaketa gehitzen dute, genero-ikuspegia kontuan har dadin.
- d) Generoen arteko desberdintasunetik sortzen diren gizon eta emakumeen arazo eta beharrak konpontzera zuzenduak dira berdintasun-politikak, eta genero-*mainstreaming*-ak, berriz, politikak lantzeko prozesuaren berrantolaketa gehitzen du, genero-ikuspegia kontuan har dadin, bai gizonen bai emakumeen aldetik.

Gizarte-hezitzailearen definizioa. Zereginak eta eskumenak.

71. Zeregin hauetatik, zein ez dator bat gizarte-hezitzaileen zeregin profesionalekin, profesionalizatzeko dokumentuak oinarritzat harturik?

- a) Sare sozialak, testuinguruak, prozesuak eta baliabideak sortzea.
- b) Kulturaren transmisioa, garapena eta sustapena.
- c) Gizarte- eta hezkuntza-testuinguruaren ezagutza, analisia eta ikerketa.
- d) Modu autonomoan “ikasten ikasten” laguntzeko mekanismak ezartzea, pertsonen garapen kognitiboa bultzatuz.

72. Hezkuntza Sozialaren definizioaren ardatz kontzeptualetako bat, profesionalizatzeko dokumentuetan agerienez, hau da: Hezkuntza Soziala...

- a) herritarren eskubide bat dela.
- b) erakunde publikoen obligazio bat dela.
- c) profesionalen eskubide bat dela.
- d) Ez da eskubidetzat jotzen.

Gizarte-hezitzailearen deontologia-kodea.

73. Gizarte-hezitzailearen deontologia-kodeko elkartasun profesionalaren printzipioak dioenez, gizarte-hezitzailea(k)...
- a) lan egiten duen erakundeko eskaria, hezkuntza-proiektua eta barne erregimeneko araudia ezagutu eta errespetatuko ditu, eta horiekin bat egingo.
 - b) jarrera aktiboa, eraikitzailea eta solidarioa mantenduko du, gizarte- eta hezkuntza-ekintzan esku hartzen duten gainerako profesionalekin.
 - c) komunitatearen partaidetza sustatuko du, hezkuntza-lanean, elkartasun-balioak bultzatuz.
 - d) berarekin lan egiten duten pertsonenganako hurbilpen zuzena eta solidarioa lortzen saiatuko da beti.
74. Gizarte-hezitzaileak hauekin duen harremanean oinarrituta daude antolatuta deontologia-arau orokorrak:
- a) Gizarte- eta hezkuntza-ekintzaren subjektuak, lanbidea, lantaldea, lan egiten duen erakundea eta, oro har, gizartea.
 - b) Gizarte- eta hezkuntza-ekintzaren subjektuak, lantaldea eta lan egiten duen erakundea.
 - c) Lanbidea eta, oro har, gizartea.
 - d) Gizarte- eta hezkuntza-ekintzaren subjektuak, lanbidea, lantaldea eta lan egiten duen erakundea.

Gizarte-hezitzailearen zeregina gizarte-gaien arloko diziplina ugariko talde batean. Jarduera-eremuak.

75. Gizarte-hezitzaileen deontologia-kodearen 17. artikulua araberak, gizarte-hezitzaileak, "bere lantaldeko kide den aldetik, proiektuen alderdi landuko ditu, zeinek gidatuko baitituzte hura osatzen duten profesionalen ekintza sozioedukatiboak, eta, bere gogoetaren bitartez, horiek gara daitezten lagunduko du". Zein da artikuluko horretan falta den hitza?
- a) sozialak
 - b) psikosozialak
 - c) edukatiboak
 - d) guztiak
76. Gizarte-hezitzaile batek ingurune hauetan lan egin dezake:
- a) Ingurune irekian edo erdi irekian, baina inoiz ez ingurune itxian.
 - b) Ingurune irekian.
 - c) Ingurune erdi irekian.
 - d) Ingurune irekian, erdi irekian eta itxian.

Esku-hartze sozial komunitarioa.

77. Zein da, Barberoren (2005) esanetan, lan komunitarioaren ardatz edo dimentsiorik zentralena?
- a) Kontzientziarazioa
 - b) Antolaketa
 - c) Mobilizazioa
 - d) Hirurak dira zentralak
78. Marchioniren hitzetan (2002), esku-hartze komunitario osoaren protagonista hau da:
- a) Administrazioa
 - b) Profesionala edo baliabide teknikoa
 - c) Biztanleria
 - d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
79. Marchionirentzat (2002), esku-hartze komunitarioaren dimentsio "izarra" hau da:
- a) Partaidetza
 - b) Informazioa
 - c) Programazioa
 - d) Koordinazioa

80. Begirada komunitario batetik (Andreu, 2008), gizarte-hezitzaile batek eragindako populazioarekin esku hartu behar du:
- dauden arazoak eta beharrak konpontzeko, behar diren baliabide materialak eskainiz.
 - haren gaitasunak bilatu eta garatzeko, bera izan dadin arazoa eragiten duten baldintzak aldatuko dituen.
 - baliabide materialak bilatu eta eskaintzeko, hura bera izan dadin arazoa eragiten duten baldintzak aldatuko dituen.
 - baliabide profesionalak bilatu eta eskaintzeko, hura bera izan dadin arazoa eragiten duten baldintzak aldatuko dituen.
81. Aktibazio soziokomunitarioak (Ruiz-Errea, Aresti eta Ipiña, 2017), aktibazio inklusiboaren aldean, hau azpimarratzen du:
- Komunitatean kohesio-harremanak ezartzeko lan egitea.
 - Komunitatean sareak sortzeko lan egitea.
 - Bi terminoek azpimarratzen dute komunitatean kohesio-harremanak ezartzeko lan egitea.
 - Bi terminoek azpimarratzen dute komunitatean sareak sortzeko lan egitea.

Gizarte-hezitzailearen esku-hartzea haurren esparruan.

82. Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak eskubide zibil eta sozialak eta eskubide politikoak jasotzen ditu. Zertan bereizten dira?
- Eskubide zibil edo sozialak nahitaezkoak eta pasiboak dira; eskubide politikoak, berriz, borondatezkoak eta aktiboak.
 - Eskubide zibil edo sozialak borondatezkoak eta aktiboak dira; eskubide politikoak, berriz, nahitaezkoak eta pasiboak.
 - Bai eskubide zibil edo sozialak, bai eskubide politikoak nahitaezkoak dira, baina, zibil edo sozialak nahitaezkoak diren arren, politikoak borondatezkoak dira.
 - Bi eskubide moten artean dagoen diferentzia bakarrak edukiarekin baino ez du ikustekorik.
83. Kolektibo edo lurralde batean harren esparruko gabezien zerrenda ezartzeko orduan, Woodheadek (1990) planteatzen du ezen, ongizate psikologikoaren kalitate unibertsal gisa ulertutako premiez gain, kontuan hartu behar direla premia-mota hauek:
- Haurren izaeraren osagai gisa ulertutako premiak
 - Gizarte-doikuntzan laguntzen duten esperientzia gisa ulertutako premiak
 - Preskripzio kultural gisa ulertutako premiak.
 - Guztiak.
84. Jolonchek (2002) ondorioztatzen du, bere ikerketan, hauek direla hezitzaile-lanbidearen arrakastaren gakoak gizarte-hezitzaile batek haurrekin diharduelarik bere egunerokoan aurre egin behar dien aldaketen eta arazo-eta egoera-aniztasunaren aurrean:
- Harremanetarako gaitasuna
 - Konpromiso etikoa
 - a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - Ezin dira zehaztu arrakasta-gako orokor batzuk; egoeraren mende dago.

Lagun egitea soziala esku-hartze sozialean.

85. Pobreziaren eta Esklusioaren kontra Borrokatzeko Nafarroako Sarearen arabera, ezaugarri edo irizpide hauetatik zein ez da beharrezko bete dezala pertsona batek, berarekin lagun egiteko klabea lan egiteko?
- 16 urtetik gorakoa izatea.
 - Pertsona lagun egiteko klabea lan egiteko gertu dagoen bizi-momentu batean egotea.
 - Prestazio ekonomikoen jasotzailea izatea, eta sartzeko akordioa sinatu izana.
 - Arlo pertsonalean gutxienez gabezia edo zailtasun bat izatea, lagun egiteko klabea lan egitea gomendatzen duena.

86. Lagun egiteaz dihardugularik, honetaz ari gara:
- Kontrol- eta tutoretza-harreman bat.
 - Harreman terapeutiko bat.
 - Laguntza-harreman bat, edo arreta pertsonalizatua.
 - Jarraipen administratiboko harreman bat.
87. Lagun egiteko klabeko esku-hartzearen kontzepzioetik, harrera-fasea...
- ez da erabakigarria, erabiltzailearekiko kontaktua etengabea baita.
 - ezinbestekoa da erabiltzailearekin geroko erreferentzia- eta konfiantza-harremana ahalbidetuko duten baldintzak sortzeko.
 - funtsezkoa da, globaltasuna ulertzen hasteko aukera ematen baitu.
 - b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

Gizarte-hezitzailearen esku-hartzea adinekoen esparruan.

88. Mañósek (2008) dio mendekotasuna eta zahartze aktiboa adinekoen esparruan esku-hartzea baldintzatzen duten bi errealitate direla, eta...
- antagonikoak direla.
 - ez direla antagonikoak.
 - kontraesankorrak direla.
 - neurgarriak direla.
89. Freirek (1990) azpimarratzen du adinekoekin lan egiten duten profesionalak beti izan behar dutela kontuan, besteak beste, printzipio hau:
- Prestakuntza-prozesua etengabea da bizitza osoan.
 - Prestakuntza-prozesua moteldu egiten da adin batetik aurrera.
 - Prestakuntza-prozesua eten egiten da adin batetik aurrera.
 - Prestakuntza-prozesua areagotu egiten da adin batetik aurrera.
90. Belaunaldien arteko programa bat, funtsean, honek ezaugarritzen du: hainbat belaunalditako pertsonen partaidetzak, truke-harremanek eta...
- programan parte hartzen duten pertsonentzat onuragarriak diren helburuak lortzera bideratutako jarduerak.
 - adinekoentzat eta haien ingurunearentzat onuragarriak diren helburuak lortzera bideratutako jarduerak.
 - komunitatearentzat onuragarriak diren helburuak lortzera bideratutako jarduerak.
 - pertsona guztientzat eta komunitatearentzat onuragarriak diren helburuak lortzera bideratutako jarduerak.

Gizarte-hezitzailearen esku-hartzea gizarte-inklusioren esparruan.

91. Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren (2017-2021) printzipioetako bat aktibatze inklusiboa da, zeinek berekin baitakar...
- gizarte-inklusiota modu eskusiboan lan-munduan txertatzearekin parekatzea.
 - lan-munduan txertatzeak gizarte-inklusiota duen munta gutxiestea.
 - Bizitzaren beste dimentsio batzuk lantzea —aisialdia, kultur jarduerak, boluntariora eta abar— lan-munduan txertatzearekin batera.
 - Gizarteratzeko IV. Euskal Planean ez da aipatzen aktibatze inklusiboa, bere horretan.
92. Gizarte-inklusiota INCLUE esku-hartze sozialerako ereduan erreferentziatutako profesionalak bete behar dituen zeregin nagusiak hauek dira:
- Erraztasunak ematea
 - Lagun egitea
 - Erraztasunak eman eta lagun egitea
 - Erraztasunak eman, lagun egin eta orientabidea ematea

93. Canoren (2012) hitzetan, gizarte-hezitzaileen praktika profesionalean, gizarte-inklusioaren esparruan, badira desiragarri ez diren zenbait efektu, gizarte-heziketaren funtsezko printzipioekin kontraesanean jartzen direnak, hala nola segregaziorako joera eta...
- estigmatizazioa.
 - partzelazioa.
 - ikuspegi indibidualista.
 - ikuspegi psikologista.

Gizarte-hezitzailea gizarteratu eta laneratzeko agente gisa. Esperientzia gazte atzerritarrekin.

94. Lagun egite sozioedukatiboko prozesuen azken helburua, gizarteratze soziolaboralean, pertsonen emantzipazioa bada, prozesu horiek...
- zentratuago egon behar dute baldintza jakin batzuen sorkuntzan, bizitzarekin, gorputz-osasunarekin, emozioekin, jolasarekin eta besterekin zerikusia duten gaitasunak barnera ditzaten pertsonak.
 - zentratuago egon behar dute merkatuak eskatzen dituen gaitasunak eskuratzean.
 - zentratuago egon behar dute lanbideak eskatzen duen ikaskuntza espezifikoan.
 - Aurreko erantzunetako bat ere ez da egokia.

95. HLPP bat hau da:

- Gaikuntza Pertsonal Integraleko Programa bat.
- Hasierako Kualifikazio Pertsonaleko Programa bat.
- Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa bat.
- Kualifikazio Profesional Integraleko Programa bat.

Osasun mentala eta gizarte-inklusioa.

96. Osasun mentala eta ongizate pertsonala faktore hauen interakzioaren emaitza dira:

- Faktore biologikoak eta faktore psikologikoak
- Faktore biologikoak, faktore sozialak eta faktore psikologikoak
- Faktore psikologikoak eta faktore sozialak
- Faktore sozialak eta faktore biologikoak

97. Osasun mentalaren arloko arazoak dituzten pertsonen bazterketa soziala faboratzen duten faktore nagusietako bat —langabezia, pobrezia eta “etxegabezia” harago—, hau da:

- Estigma eta autoestigmatizazioa.
- Diskriminazioa.
- Medikazioa.
- Enuntziatuan ageri diren hiru faktoreak dira faktore nagusiak.

98. Gizarte-hezitzailearen zeregin espezifikoaren artean, osasun mentalaren arloan, hauek nabarmentzen dira:

- Autonomia pertsonala indartzea.
- Harreman sozialaren sustapena dinamizatzea.
- Komunitatean txertatzea.
- a), b) eta c) zereginak.

Pertsonarengan zentratutako arreta integralaren eredua.

99. “Bizi-proiektuetan laguntzea” da pertsonarengan zentratutako arretaren zutabe nagusietako bat.

- Bai, baina pertsona autonomoa den kasuetan bakarrik.
- Bai, baina proiektua egingarria den kasuetan bakarrik.
- Ez
- Bai

100. Defizitetan eta premietan zentratutako arreta-eredua, zeinetan erabakiak profesionalen mende baitaude, honelako eredua da:

- Zerbitzuan zentratua
- Pertsonarengan zentratua
- Profesionalarengan zentratua
- Ezagutzan zentratua